



topaketak
encuentros

HIRIEN FOROA
2006ko azaroak 30
DONOSTIAKO UDALEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

“EUSKAL EUROERREGIOA: PROIEKTUAK ETA ERRONKA KOMUNAK” FOROKO TXOSTENEN LABURPENA

Donostiako Plan Estrategikoak eta Udalak “Euskal Euroerregioa: Proiektuak eta Erronka Komunak” titulupean antolatutako Foroak Euskadiko hiru hiriburu-eta alkateak bildu ditu, Miarritze eta Baionako agintariekin batera. Euskal hiriek elkar osatzea lortzeko erronka abian jarri duen topaketa izan da hau.



Ibon Areso, Bilboko lehen alkateordeak Bizkaiko hiriburua erabat eraldatzea ahalbidetu duten funtsezko oinarriari egin die erreferentzia. Bilbo transformatzea bezalako erronka zail baten aurrean, Administrazio Publiko ezberdinen adostasuna bere txostenaren punturik garrantzitsuenak izan da, egoera honek bilbotarren arrakasta ekarri duela azpimarratuz. Areso hirian bistan dauden eraldaketei buruz aritu da. Ibaia honen adierazgarri argia da, “estolda nabigagarri” bat izatetik, gaur egun arrantza eskolak garatzen diren eta 50 arrain espezie ezberdin bizi diren toki bat bihurtu arte.


Donostiako Alkateari egokitu zaio jarraian hitz egitea.

Odón Elorzak Gipuzkoako hiriburuak dituen jarduera bereizgarriak berrasmatu egin behar izan dituela nabarmendu du, hauek gaurkotzeko prozesu bat egin behar izanik. Honen adibide Aquariuma, Victoria Eugenia Antzokia edota Tabacalera dira.

Donostiako Alkateak etxebizitzaren gaian egin du indar berezia. Udalak duen proiektu garrantzitsuenetako bat, Auditx Akular, Morlans eta Txomin hauen artean izanik.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Plan Estrategikoa
Donostia - San Sebastián



topaketak
encuentros

HIRIEN FOROA 2006ko azaroak 30 DONOSTIAKO UDALEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

Azken urteotan auzo ezberdinetako gizarte-etxeetan gertatzen ari den eraldaketa gertakari garrantzitsua da hiriarentzat baita ere. Horrela, hauetako batzuek berritzea eta beste batzuk eraikitzea lortuz.



Juan Castro, Gasteizko Plan Estrategikoko Zuzendariak, hiriaren egoerari buruzko laburpen bat aurkeztu du, honentzat aurrean dauden erronka eta aukera berrietan ere erreparatuz. Hazi nahi duen hiri bat, baina ez gehiegi, era berean, aldaketa berrietara egokituz (globalizazioa, migrazioaren fenomenoa...).

Plan Estrategikoan islatzen diren Gasteizen apustuak lau zutabetan oinarritzen dira: elkarbizitza eta pertsonen zerbitzuak, ekoizpen industria dibertsifikatua eta modernoa, jasangarritasuna garapeneren motore gisa eta hiriburu izatearen garapenean bertan oinarritutako hiriburu erakargarri izatea.




Zenbait proiektu aurkeztu ditu, hauen artean, trenbidearen lurperatzea, hiriaren artikulaziorako elementu baliagarri gisa eta abiadura handiko trenak Gasteizera sartzeko aurreikuspenari lotuta, zentraltasun berri bat sortuko du, hiriarentzat aukerarako espazio bat izanik, bertan geltoki intermodala eta negozioetarako gunek bat, alde zaharraren birgaitze osoa, Gizarte eta

Baloreen Eskolaren garapena, Hiri Digitala, Jasangarritasunaren Ikerketa Gunea eta “Gasteiz mapan jartzera” zuzendutako proiektua.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Plan Estrategikoa
Donostia - San Sebastián



topaketak
encuentros

HIRIEN FOROA
2006ko azaroak 30
DONOSTIAKO UDALEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

Miarritzeko Alkateak, **Didier Borotrak**, kalitatezko turismoan, kostaldeko hiri honek duen garrantzia azpimarratu du. Horretarako ezinbestekoa da irisgarritasun azpiegitura onak izatea. Berebizikoa da beraz, aireko garraioaren aldeko apustua. Eta Miarritzetik kostu baxuko hegazkin konpainien bidez erakarri nahi izan ditu turistak.




Hiritar gazteak erakartzeko bidean, bere udala egiten ari den ahalegina aipatu du baita ere. Gaur egun, Miarritzeko biztanleriaren %35 65 urtetik gorakoa da. Horregatik, udala hiria gaztetzeko ahaleginean ari da. Borotrak BAB Eurohiria irekia izatearen aldeko apustua egin du baita ere (Baiona-Anglet-Miarritz), irekia izan eta Donostia bertan sartzeko ideia baztertu gabe.

Jean-René Etxegaray, Baionako lehen alkateordeak, Eurohiriko hiri ezberdinetako ekintzak aldi berean egiteko beharra nabarmendu du. Udal ezberdinen arteko osatzearen nagusitasuna defendatu du.

Jateko atsedenaldia egin ondoren, arratsaldeko txostenak Baiona, Bilbo eta Donostiako Plan Estrategikoetako Zuzendarien eskutik joan dira.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Plan Estrategikoa
Donostia - San Sebastián



topaketak
encuentros

HIRIEN FOROA
2006ko azaroak 30
DONOSTIAKO UDALEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

Bernard Lesbats Baionako Project Urbaineko zuzendariak, hiri honek nukleo dinamiko bat duela eta eraikuntza erritmoaren hazkuntza altua dela adierazi du. Baionak duen Planaren hiru oinarriak zeintzuk diren azaldu du. Unibertsitatean berriz ere sartzea, kulturaren arloan azpiegitura berrien garapena eta hirigintza eraldaketa. Ikea Baionan jartzeak merkataritzaren sektoreari bultzada nabarmena emango dio, eskualde osoan lanpostu berrien sorrerarekin batera.



Alfonso Martínez, Bilbao Metropoli 30eko zuzendariak entitate ezberdinen arteko harremanean oinarritzen den Eurohiriaren aldeko apustua egin du. Hiritarra identifikatuta sentituko den eta partehartzeko irrikitzen dagoen hirietara aurrera egin. Epe luzera Eurohiriak izango dituen helburuen definizioa eskatu du, horrela guztien arteko kontsensua lortzeko. Bere iritziz, Eurohiriaren arrakastaren gakoa hiri bakoitzak bere berezitasuna duela ulertu eta errespetatzean datza.


Kepa Korta, Donostiako Plan Estrategikoko zuzendariak Donostialdeak duen egoera demografikoa nabarmendu du, bertan 20 eta 30 urte arteko biztanleria, 10 eta hogeita urte bitartekoaren bikoitza delako. Beste ondorioez gain, enpleguan eta etxebizitzara sarbidean dituen efektuetan berebiziko garrantzia aipatu behar da. Kortak, Donostian kualifikatutako lanari eman zaion garrantzia azpimarratu du. Bioteknologiari lotuta, Miramon Teknologia Parkeak izan duen garapenak adibide gisa balio du.



Foroa, Donostiako Udaletxeko Pleno Aretoan bildu den publikoari irekitako galderen txandarekin amaitu da. Jardunaldian zehar 100 gonbidatutik gora izan dituen topaketa honetan interes handia jarri dute Donostiako Udaleko zinegotziek



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Plan Estrategikoa
Donostia - San Sebastián